

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2202

AGINDUA, 2012ko maiatzaren 8koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, ikerketa-egintza berezietarako laguntzak emateko deialdia egiten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoan zientzia– eta teknologia-ahalmena indartu behar dela ikusi da, eta ikerketa-taldeek egindako ikerketa-proiektuak garatzea bultzatu eta finkatzeko, ikerketa-ekintza bereziak egiteko laguntzak sustatu behar dira.

Kontuan hartu da Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatu, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen (2009ko maiatzaren 9ko EHAA).

Kontuan hartu dira, halaber, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua. Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura emandako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen jardunbide orokorra arautu zuen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, jardunbidea eta betebeharrak ezarri zituen (1992ko otsailaren 7ko EHAA, 26. zk.); azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolaraueti buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan egingo diren ikerketa-egintza bereziak finantzatzeko deia egitea eta arautzea.

2.– Deialdi honetan laguntzak eskaintzen dira, Europar Batasuneko I+G programa markoaren programa berezietan onartutako proiektu europarrak aurkezteko.

2. artikulua.– Laguntzen finantzazioa.

Agindu honetan araututako laguntzak finantzatzeko, 120.000 euro bideratuko dira.

Artikulu honetan esleitutako zenbateko orokorra aldatu ahal izango da, guztira eskatutako laguntzen zenbatekoa kontuan hartuta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beste laguntza-programak gauzatu ondoren agortu gabe gerta litezkeen aurrekontuen arabera eta laguntza horiek ebatzi aurretik. Aldatuz gero, horren berri Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak emango du ebazpen baten bitartez.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agente kreditatuak, duten kategorია gorabehera, urriaren 1eko 221/2002 Dekretuaren 2. artikuluaaren arabera (221/2002 Dekretua, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen oinarri-arauak eguneratu zituen).

Ezin izango dute onuradun izan zigor administratibo edo penala jasotzeagatik laguntza edo diru-laguntza publikorik eskuratzeko aukera galdu duenek edo laguntza publikoak eskuratzeko lege-debekurik dutenek, ezta sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik debeku horrekin zigortutakoak ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean jasotakoaren arabera.

2.– Erakunde onuradunek eskabidearen oroit-idazkian eta deialdiaren ebazpenean beren beregi izendatua agertzen diren jardueretarako eta ikertzaileentzat baino ez dituzte erabiliko laguntzak.

3.– Ekintzaren erantzukizuna duen ikertzaileak doktore-titulua izan behar du.

4. artikulua.– Egintza berezien ezaugarriak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan egiten den ikerketa-jardueraren barruan egintza berezi, aparta eta puntualen bat eskatzen duten helburu zientifikoak lortzeko izango dira egintza hauek.

2.– Besteak beste, honako hauek joko dira egintza berezizat:

a) Europako programetarako proiektu-proposamenak lantzeko egintzak.

b) Presa eta interes berezia duten bestelako egintza zientifiko-teknologikoak.

3.– Egintzek 2012. urtean hasi eta 2013ko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko dute.

4.– Deialdiak ez du kapital-ondasun eskuratzetik ikusten.

5.– Ukatu egingo dira Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan bestelako deialdi publikoetatik finantzatu litezkeen ekintzak.

5. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabidea eta gainerako agiriak aurkezteko epea hilabetekoa da, agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Deialdiaren testua eta eskabide-agiriak lortzeko interneteko helbidea: «<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>».

2.– Eskabideak eta gainerako agiriak helbide honetan aurkeztu beharko dira:

Eusko Jaurlaritza.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Zientzia Politikarako Zuzendaritza.

Erreferentzia: Ikerketa-egintza bereziak.

Donostia kalea, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

Correos-eko bulegoetan aurkezten badira, gutun-azala irekian eramango dira, honela eskabidearen goiburuan Correos-en noiz hartu diren jaso ahal izateko.

Halaber, «Zuzenean» Herritarrentzako Arreta bulegoetan eskabidea aurkeztu zein informazioa eskatu daiteke; Bizkaian (Kale nagusia, 85; 48011 Bilbao), Gipuzkoan (Andia, 13; 20003 Donostia-San Sebastián) eta Araban (Ramiro de Maeztu, 10 behe; 01008 Vitoria-Gasteiz). Telefono-arreta, 012 zenbakien bidez eska daiteke Euskaditik bertatik deituz gero, 945 01 80 00 Estatuko gainontzeko lekuetatik, eta 0034 94 501 80 00 atzeritik deituz gero.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaileen kasuan, hauetako edozein erregistro-bulegoetan aurkeztu ahal izango da eskabidea: Araban, 01 Erregistro-bulegoan (Arabako Campuseko Errektoreordetza, Izarduy komandantea, 2; 01005 Vitoria-Gasteiz), Gipuzkoan 02 erregistro-bulegoan (Ignacio M.^a Barriola ikastegia, Elhuyar Plaza 1, 20018 Donostia-San Sebastián), Bizkaian 03 erregistro-bulegoan (Errektoretza, Sarriena, z/g; 48940 Leioa) eta bertako 84 erregistro-bulegoan (Larrako Etxea, Agirre Lehendakaria etorbidea, 83; 48015 Bilbao).

Nolanahi ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da. Halaber, eskabideak aurkeztu daitezke 72/2008 Dekretuak apirilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoak zehaztutako egoitzetan, beti ere, eskabideak aurkezteko deialdiak ezarritako epearen barruan.

3.– Eskabideak egiteko eskatzen diren agiriak.

a) 1. agiria: laguntza-eskabidea.

b) 2. agiria: egintzaren arduradunaren eta parte hartzen duten bestelako ikerlarien datuak, erakunde, zentro edo sailaren datuak, eskabidearen xedea eta horren apartekotasunaren zergatia.

c) 3. agiria: eskatzen diren funtsen justifikazio xehatua eta –behar denean– proforma-faktura; halaber, helburu berbererako beste erakunde publiko zein pribatuei eskatutako edo/eta haiengandik jasotako diru-laguntzena.

d) Ikertzaile arduradunaren curriculum vitae-a.

e) Laguntza kudeatzeko organoak, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikokoak ez diren eskatzaileek zerga-betebeharrak ordainduta dituztelako egiaztatuko du modu automatikoan, behar adina aldiz eta entitate eskatzailearen baimenik gabe, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolaraueti buruzko Legearen Testu Bategina onartzen zuenaren arabera. Nafarroako Ogasunean tributatu gero, entitate eskatzaileek zerga-betebeharrak ordainduta dituztelako egiaztapena aurkeztu beharko dute.

f) Zuzenbidean baliagarri den dokumentazioa, eskaria sinatu duena ikastetxearen legezko ordezkari dela ziurtatzeko.

g) Eskabideak erantzukizuneko adierazpena barne hartzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak 50. artikulua seigarren atalean aipatzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 5/2010 Legearen bidez sartu dena. Jakinarazpenak honako hauek hartuko ditu:

– Entitate eskatzaileak xede bererako beste diru-laguntza, sarrera edo baliabiderik eskatu dituen edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutan, eta, behar izanez gero, halakorik eskuratu duen ere bai.

– Diru-laguntzen esparruan hasitako inongo itzultze– edo zehatze-prozeduratan sartuta dagoen entitate eskatzailea.

– Entitate eskatzaileari diru-laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen administratiborik edo penalik dagoen, edo horretarako legezko inolako debekurik jaso duen, sexu-

diskriminazioaren ondorioz jasotakoak barne hartuta, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen –Gizonen eta Emakumeen berdintasunaren aldekoaren– azken xedapenetatik seigarrenean arabera.

4.– Eskabidea Europako proiektuak egiteko bada, laguntzaren helburu diren proposamenen inguruan aldez aurretik izandako hartu-emanei buruzko agiriak bidali beharko dira.

5.– Ikertzaile arduradunaren entitatearen legezko ordezkariaren oniritzia izan beharko du eskabideak, eta ordezkari horrek bere gain hartu beharko ditu agindu hau aplikatzen sortzen diren betebeharrak.

6. artikulua.– Laguntza kudeatzeko organoa.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzak kudeatuko ditu deialdi honetan aurreikusitako laguntzak.

7. artikulua.– Eskabideetan egin diren hutsak zuzentzea.

Baldin eta agindu honen 5. artikuluan eskatutako zerbait betetzen ez duen eskabideren bat edo agiriren bat aurkezten bada, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak 10 eguneko epea emango die sinatzaileei hutsak zuzen ditzaten edo arauzko agiriak aurkez ditzaten, eta ohararaziko die, agindutakoa bete ezean, eskaera bertan behera utzi dutela esan nahiko duela. Hala agintzen da azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

8. artikulua.– Ebaluazioa.

1.– Batzorde batek ebaluatuko ditu eskabideak: Zientzia Politikarako zuzendariak –buru izango da– eta Unibertsitate zuzendariak osatuko dute batzordea, eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzako teknikari baten laguntza izango dute; teknikari horrek idazkaritzaren egitekoak beteko ditu. Batzordeak, berriz, laguntzak emateko edo ukatzeko proposamena egingo dio Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari.

Batzorde horrek, bere lana egiteko, proposamenaren kalitate zientifikoa ebalua dezatela eska diezaieke zientzialari adituei, nori bere arloan.

2.– Irizpide hauek erabiliko dira, pisu berberaz, eskabideak ebaluatzeko:

a) Proposamenaren kalitate zientifiko-teknikoa (helburuak, eduki berriztatzailea, lan-egitasmoa, nazioartekotzea,...), ikerketa-taldearen potentzialarekiko bideragarritasuna eta proposatzen diren helburu eta eskatzen diren errekurtsoen arteko egokitzapena. 50 puntu.

b) Eskatzailearen ikerketa jarduera azken hamar urteetan (ikerketa-proiektuetan eta kontratuetan izandako parte-hartzea, patenteak, utilitate-modeloak, gidatutako doktoretza-tesiak). 25 puntu.

c) 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planari, 2010-2014ko Unibertsitate Planari eta Europar Batasuneko I+G programa markoari egokitzapena. 25 puntu.

9. artikulua.– Laguntzak esleitzeko prozedura.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak lehiaketa bidez ebatziko dira. Horretarako, aurkeztutako eta onartutako eskabide guztiak konparatuko dira, eta horien arteko lehentasuna ezarriko da 8. artikuluan aipatu diren irizpideak kontuan hartuta; balorazio altuena lortu dutenei baino ez zaie esleitu laguntza, agindu honen 2. artikuluan finkatzen den aurrekontu-kreditua agortu arte.

10. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

1.– Laguntza 12.000 eurokoa izango da, gehienez ere; kopuru horrek aurkeztutako gastu-aurrekontuaren % 100 ere estal dezake.

2.– Proiektuek eskatu eta mugikortasuna estaltzeko honako modulu hauek ezartzen dira: gutxienez hiru ikertzaileen lekualdaketen kasua, 2.240 euro. Bestelako kasuetan, 1.120 euroko diru-laguntza emango da.

3.– Laguntzek ezin izango dute inoiz aurreikusi erakunde onuradunari atxikitako estatutupeko edo kontratupeko langileei ordaintzea, ezta diru-kopururik ezartzea ikerketa-bekadunentzat edo ikerketan laguntzen duen beste edozein langilerentzat ere.

11. artikulua.– Bateragarritasuna.

1.– Agindu honen babesean emandako laguntzak bateragarriak dira ikerketa-egintza berezi bera finantzatzeko ematen den beste edozein laguntzarekin.

2.– Laguntzen zenbatekoa ezingo da izan sortutako gastuak baino handiagoa; hori gertatuz gero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako diru-laguntza proportzioan murriztuko da, aurrekontu hori ez gainditzeko.

3.– Egintzaren ikertzaile arduradunak eta eskaria izenpetzen duten beste zientzialari guztiek eskaera bakarra egin ahal izango dute deialdiko.

12. artikulua.– Ebazpena.

1.– Ebaluatzeko Batzordeak proposatuta, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak ebazpen bat emango du laguntzak esleitu eta diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, eta interesatuei jakinaraziko die. Ebazpen hori hiru hileko epean hartuko du, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean zenbatzen hasita.

2.– Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesatuei, azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusten den eran. Aurreko atalean ezarritako epean ebazpenik hartzen eta jakinarazten ez bada, eskabideak ezetsizat jo beharko dituzte eskatzaileek.

3.– Ebazpen horren aurka, interesatuek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunean zenbatzen hasita.

4.– Aurrekontu-ekitaldiaren amaieran, agindu honen babesean eman diren laguntzen zerrenda argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

13. artikulua.– Erakunde onuradunen betekizunak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzaren onuradunek betekizun hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartu beharko dute. Izan ere, diru-laguntza eman zaiela jakinarazteko agiria jaso eta hamar eguneko epean, entitate onuradunek, beren-beregi eta idatziz, laguntzari uko egiten ez badiote, diru-laguntza onartu dutela esan nahiko du.

b) Laguntza zertarako eman den, horretarako erabili beharko dute, ez beste ezertarako.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak –deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzen inguruan dituzten egitekoak gauzatu– eskatutako informazioa eman beharko dute.

14. artikulua.– Diru-laguntzak ordaintzea.

1.– Laguntza erakunde onuradunari ordainduko zaio, bere aurrekontuetan sar dezan.

2.– Emandako laguntzak zatika ordainduko dira, bi alditan.

Lehen zatia aurretiaz ordainduko da kontuan, eta emandako laguntzaren % 75ekoa izango da; 13.a) artikuluan adierazitako epea amaitzen denean ordainduko da, baldin eta laguntzari ukorik egin ez bazaio.

Bigarren zatia, jarduera bukatutakoan, laguntzaren likidaziotik ateratzen den zenbatekoaz; ordaintzeko, ordea, datorren artikuluan adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dira.

3.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.4 artikuluan ezartzen denez, diru-laguntzak eta laguntzak esleitzeko eta, hala behar bada, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketara edo zehapen prozedura oro, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo horko erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzengatik hasitakoak eta artean izapidetzen ari direnak.

15. artikulua.– Diru-laguntzak justifikatzea eta segimendua.

1.– Diruz lagundutako ekintza gauzatu dela justifikatu beharko dute agindu honetako laguntzen erakunde onuradunek. Horretarako, ekintza bukatuta eta betiere 2014ko otsailaren 28a baino lehen, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Zientzia Politikarako Zuzendaritzan:

a) Ikerketa-taldeko arduradunak aurkeztutako txosten labur bat.

b) Erakunde onuradunaren Gerentziaren edo Kontabilitate Zerbitzuaren ziurtagiria, emandako laguntzarekin egindako guztizko gastuari buruzkoa, kontzeptuen arabera banaketa azalduz eta, gerakinik bada, halakorik izatea justifikatuz.

2.– Erakunde onuraduneari artxibatu beharko dira jatorrizko fakturak, gehienez bost urtez artxibatu ere, arestian adierazitako justifikazio-epea hasten denetik aurrera. Zientzia Politikarako Zuzendaritzaren, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren esku egongo dira fakturok, egiaztapenik egin nahi badute edo.

3.– Norbere ibilgailuarekin egindako joan-etorriak justifikatzen badira, kilometroko 0,29 euro ordainduko dira.

4.– Justifikatutako gastuak emandako diru-laguntza baino txikiagoak badira eta ez-betetzerik ez badago, diru-laguntza gutxitu egingo da justifikatu ez den kopurua kenduta, eta jasotako diru-laguntzak proportzioan itzuliko dira, dagokion prozedurari jarraituz. Prozedura hori Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak amaituko du ebazpen batez, non hasierako ebazpena aldatuko den.

5.– Zientzia Politikarako Zuzendaritzak egingo du laguntza jaso duten egintzen segimendu zientifiko-teknikoa. Horretarako, egoki ikusten dituen batzordeak osatu ahal izango ditu.

16. artikulua.– Ez-betetzeak eta laguntza itzultzea.

1.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko herriogasuntza nagusiaren antolarazari buruzko legearen testu bategina onartu zen (1998ko urtarrilaren 19ko EHAA). Testu horren 53. artikuluan ezartzen denez, laguntza edo diru-laguntza ordain dadila eskatzerik ez da izango eta, behar izanez gero, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira eta laguntza edo diru-laguntza eman zenetik sortutako legezko interesak ordaindu, baldin eta:

a) Onuradunek, guztiz edo zati batean, bete gabe utzi badituzte deialdi honetako oinarriak, diru-laguntzei buruzko araudi orokorrekoak edo diru-laguntza emateko ebazpenean erabakitako baldintzak.

b) Diru-laguntza emateko eskatzen diren datuak ezkutatu edo aldatzen badituzte edo eskatutako informazioa iruzurrez manipulatu badute.

c) Egintza proposatutako helburuekin edo ezarritako epeekin bat etorri gabe garatzen badute, Zientzia Politikarako Zuzendaritzaren baimenik gabe.

d) Zientzia Politikarako Zuzendaritzak, diruz lagundutako egintzen segimendua egiterakoan, gastua proposatutakoarekin eta esleitutakoarekin bat ez datorrela egiaztatzen badu.

2.– Baldin eta diru-laguntza emateko kontuan izan ziren baldintzak aldatzen badira edo beste administrazioen baten edo beste entitate pribatu nahiz publikoren baten laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen badira edo helburu bererako beste diru-iturri edo baliabide batzuk jasotzen badira, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu egin daiteke, betiere, diru-laguntzei buruzko arauan entitate onuradun izateko ezarritako gutxienezko betekizunak konplintuz gero.

3.– Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. tituluan ezarritakoarekin bat etorritik, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak deklaratu du, ebazpen baten bidez, laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela eta, hala behar denean, diru-zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzuli behar direla (698/1991 Dekretua, diru-laguntzak itzultzeko prozedura orokorra arautu zuena; 1992ko otsailaren 7ko EHAA). Dena den, hori egin baino lehen, prozedurari dagozkion izapideak egin beharko dira, eta behar izanez gero, beste ekintza batzuk ere gauzatuko dira.

4.– Diru-zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

17. artikulua.– Datu Pertsonalak babestea.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak Zientzia Politikarako Zuzendaritzaren 3. zenbakidun fitxategian, «Ikerketa» izenekoan, jasoko dira, eta deialdian parte hartzen duten pertsonen berriaz ematen dute datu horiek tratatzeko eta argitaratzeko baimena. Fitxategi hori arau honen xedapen-esparruan sartzeko da: 2010eko urriaren 4ko agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren datu pertsonalen fitxategi jakin batzuk arautzen dituena (azaroaren 5eko EHAA, 213. zk.). Zientzia Politikarako Zuzendaritza da fitxategi horren arduraduna. Datuak aurkaratu, kontsultatu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak Zientzia Politikarako Zuzendaritzan erabili ahal izango dira. Horretarako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzara jo beharra dago (Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz).

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean kontatzen hasita hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi

2012ko maiatzaren 18a, ostirala

Nagusian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera bi hilabeteko epearen barruan.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean emango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 8a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

ERANSKINA

1. AGIRIA

EGINTZA BEREZIETARAKO LAGUNTZA-ESKABIDEA

Jauna/Andrea:

Izenpetzen duenak (*), (bi abizen eta izena) _____
 _____, _____ NAN zk.
 _____ kargua duenak
 _____ erakunde
 _____ datako Aginduari jarraikiz, egintza bereziatarako
 deia buruzkoa, _____ EHAA zk. _____ datakoa

(*). Erakundearen legezko ordezkariak. Euskal Herriko Unibertsitateko eskariak Ikerketa Errektoreordeak sinatu behar ditu.

ESKATZEN DU:

Diru-laguntza ematea, egintza bereziatarako programaren barruan, erantsitako agirian adierazi ditugun datuen arabera.

ADIERAZTEN DU:

1.- (BAI/EZ, dagokiona adierazi)

Helburu berbererako diru-laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik datozenak, eskatu edo lortu ditudala.

BAI adierazi baduzu, eskaeraren edo eman izana egiaztatzeko agiriaren kopia gaineratu behar duzu.

2.- (BAI/EZ, dagokiona adierazi)

Dirua itzultzeko edo zigortzeko prozeduraren batean nagoela edo prozedura hori ireki didatela, prozedura horri Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek emandako diru-laguntzen barruan hasiera eman bazaio eta oraindik tramitazio-fasean badago.

BAI adierazi baduzu, prozedurari hasiera eman izana egiaztatzeko agiriaren kopia gaineratu behar duzu.

3.- (BAI/EZ, dagokiona adierazi)

Zigor- edo administrazio-bidetik ezarri didatela diru-laguntza publikoak jaso ezin izateko zigorra edo horretarako ezgaitzen nauen legezko debekuren bat dudala, sexu-diskriminazioa egin izanagatik gertatu diren zigorrak edo debekuak barne, otsailaren 18ko 4/2005 legeak, Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzkoak, seigarren azken xedapenean zehaztutakoaren arabera.

BAI adierazi baduzu, zigorraren edo debekuaren kopia gaineratu behar duzu.

4.- Hartzen dudala Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Politika Zientifikoko Zuzendaritzari dirulaguntza emateko orduan exijitu eta kontuan hartzen diren baldintzetakoren bati eragiten dion edozein aldaketa jakinarazteko konpromisoa, baita, beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen aldetik helburu berbererako dirulaguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu badituz, hori jakinarazteko konpromisoa

Eta hala jasoa gera dadin honako hau sinatzen du, _____ (e)ko _____ (a)ren _____

Erakundearen legezko ordezkariaren
sinadura

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak Zientzia Politikarako Zuzendaritzaren 3. zenbakidun fitxategian, «Ikerketa» izenekoan, jasoko dira, eta deialdian parte hartzen duten pertsonak berariaz ematen dute datu horiek tratatzeko eta argitaratzeko baimena. Fitxategi hori arau honen xedapen-esparruan sartzeko da: 2010eko urriaren 4ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren datu pertsonalen fitxategi jakin batzuk arautzen dituen (azaroaren 5eko EHAA, 213. zk.). Zientzia Politikarako Zuzendaritza da fitxategi horren arduraduna. Datuak aurkaratu, kontsultatu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak Zientzia Politikarako Zuzendaritzan erabili ahal izango dira. Horretarako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzara jo beharra dago (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

UNIBERTSITATE ETA IKERKETAKO SAILBURUORDEA

2. AGIRIA

Egintzaren ardura duen ikertzaile nagusia

Abizenak _____ Izena _____
 NAN _____ Jaioteguna _____
 Lanbide-kategoria _____

Kokapena

Erakundea _____
 Zentroa _____
 Saila _____
 Helbidea _____

Ekintzan parte hartzen duten beste zientzialari guztiak (errepikatu behar beste bider).

Abizenak _____ Izena _____
 NAN _____ Jaioteguna _____
 Lanbide-kategoria _____

Kokapena

Erakundea _____
 Zentroa _____
 Saila _____
 Helbidea _____

Egintza berezia eta hasteko eta amaitzeko egunak

Egunak _____

Izenburua:

Egintza berezia entitate publikoren batek finantzaturako ikerketa-proiektu bati zuzenean lotuta badago, datu hauek zehaztu:

Proiektuaren izenburua

Entitate finantzatzailea _____
 Erreferentzia zk. _____
 Indarraldia _____
 Aurrekontu osoa _____

ESKABIDEAREN XEDEA ETA BERE APARTEKOTASUNAREN JUSTIFIKAZIOA



3. AGIRIA

Eskatzen diren funtsen justifikazio xehatua, eta helburu berbererako beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako edo/eta haiengandik jasotako diru-laguntzena.

CURRICULUM VITAE-A
INPRIMAKI ARAUTUA
Orri-kopurua:

Izena

Eguna:

Sinadura:

Goian sinatzen duenak curriculum honetan jasotzen diren datuak benetakoak direla adierazten du. Izan ere, zehaztugabetasunik balego eta horren ondorioz erantzukizunik sortuko balitz, bere gain hartuko luke.

Halaber, bere adostasuna adierazten du datuen tratamenduarekin Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren partetik, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitzategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

- Ez ahaztu beharrezkoa dela orrialde guztietan bazterrean sinatzea.

- Curriculum hau aurkeztuta ere, hor emandako informazioa osatzeko dei diezazukete ebaluazioa egiten den bitartean.

2012ko maiatzaren 18a, ostirala

Abizenak, izena	_____	Sexua	_____
NAN	_____	Jaioteguna	_____
Helbidea:	_____		
Hiria	_____	PK	_____
Espezializazioa (Unesco kodea)	_____		
Funtzionario zk.:	_____		
Telefonoa	_____		

PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA

Lizentziatura/Ingeniaritza	Zentroa	Eguna
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____
Doktoregoa	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____

Tesiaren gidaria(k): _____

GAUR EGUNGO LANBIDE-EGOERA

Erakundea	_____		
Zentroa	_____		
Saila/atala/unitate estr	_____		
Lanbide-kategoria eta hasteko eguna	_____		
Posta helbidea	_____		
Telefonoa (aurre-zenbakia, zenbakia eta luzapena)	_____		
Plantillakoa	<input type="checkbox"/>	Dedikazioa:	Lanaldi osoa <input type="checkbox"/>
Bitartekaria	<input type="checkbox"/>		Lanaldi partziala <input type="checkbox"/>
Bekaduna	<input type="checkbox"/>		

ZIENTZIA ARLOAN EDO LANBIDEAN LEHENDIK EGINDAKO JARDUERAK

Egunak	Lanpostua	Instituzioa
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____
_____	_____	_____

ZIENTZIAN ERABILTZEN DIREN HIZKUNTZAK (E=erdizka; O=ongi; Z=zuzen)

Hizkuntza	Hitz egin	Irakurri	Idatzi									
_____	<table border="1"><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr></table>				<table border="1"><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr></table>				<table border="1"><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr></table>			
_____	<table border="1"><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr></table>				<table border="1"><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr></table>				<table border="1"><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr></table>			
_____	<table border="1"><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr></table>				<table border="1"><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr></table>				<table border="1"><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr><tr><td> </td></tr></table>			

2012ko maiatzaren 18a, ostirala

FINANTZATUTAKO IKERKETA-PROIEKTUETAN IZANDAKO PARTE-HARTZEA
(azken 10 urteetakoak)

Proiektuaren izenburua	_____
_____	_____
_____	_____
Entitate finantzatzailea	_____
Iraupena, hasiera	_____ Amaiera _____
Ikertzaile nagusia	_____
_____	_____

ARGITALPENAK

(azken 10 urteetakoak; 10 argitalpen gehienez)

Zehaztu liburukia, lehenengo eta azken orrialdeak (urtea) eta kodea.

KODEA: L= liburu osoa, LK= Liburuaren kapitulua, A= artikulua, R= review, E= editorea.

Egileak (sinaduren hurrenkeran): _____

Izenburua: _____

Aldizkaria/liburua: _____

Kodea: _____

ENPRESA EDO/ETA ADMINISTRAZIOEKIN EGINDAKO GARRANTZI BEREZIKO IKERKETA-KONTRATUETAN IZANDAKO PARTE-HARTZEA

(azken 10 urteetakoak)

Kontratuaren izenburua	_____

Enpresa/Administrazio finantzatzailea:	
Iraupena, hasiera	_____ Amaiera _____
Ikertzaile arduraduna	_____

PATENTEAK ETA UTILITATE-MODELOAK
(azken 10 urteetakoak)

Asmatzaileak (sinaduren

hurrenkeran): _____

Izenburua: _____

Eskabide zk. _____

Lehentasuna (Herrialdea) _____

Lehentasuna (data) _____

Entitate titularra: _____

Zein herrialdetara zabaldu den: _____

Zein enpresak ustiatzen duen: _____

2012ko maiatzaren 18a, ostirala

ATZERRIKO ZENTROETAN EGINIKO EGONALDIAK
(azken 10 urteetakoak; sei hilabetetik gorako egonaldi jarraituak)

Kodea: D=doktoregaia; DO=doktoratu ondokoa; G=gonbidatua; K=kontratatua; B=beste batzuk (zehaztu)

Zentroa: _____

Herria: _____ Herrialdea _____ Urtea: _____

Iraupena _____

Gaia: _____ Kodea _____

KONGRESUAK

(Azken 10 urteetakoak; bost ekarpen genienez)

Egileak: _____

Izenburua: _____

Parte-hartze mota: _____

Kongresua: _____

Argitalpena: _____

Non egingo den: _____

Urtea: _____

GIDATUTAKO DOKTORETZA-TESIAK

(azken 10 urteetakoak)

Izenburua: _____

Doktoregaia: _____

Unibertsitatea _____

Fakultatea edo eskola: _____

Urtea: _____

Kalifikazioa: _____

AIPATU NAHI DIREN BESTE MEREZIMENDU EDO ARGIBIDE BATZUK
(inprimaki honek eskaintzen duen lekua baino ez erabili)
